

The Road to Abu Dhabi: The Local Way

PRESTAKETA-TAILERRA

Uraren eta saneamenduaren erronka globaletarako Euskadiren ekarpena, Urari buruzko 2026ko Nazio Batuen Konferentziaren ildotik

Eguna: Azaroak 24
Lekua: María Díaz de Haro 3 – -1 solairua

Sarrera

Ura funtsezko elementua da garapen jasangarrirako, baina ura eskuratzearekin, kudeatzearekin eta kontserbatzearekin lotutako erronkek mehatxatzen jarraitzen dute 6. GJHa. Erantzun global anbiziotsuagoa bultzatzeko, Nazio Batuek Urari buruzko Nazio Batuen Konferentzia egingo dute 2026ko abenduan, Abu Dhabin; izan ere, funtsezko topagunea da uraren eta saneamenduaren arloko ekimena bizkortzeko eta eragileen eta gobernantza-mailen arteko lankidetza indartzeko.

Uraren erronkak lurraldeetan gauzatzen direla eta bertan aurre egiten zaiela kontuan hartuta, Local2030 Koalizioak **Road to Abu Dhabi** ekimena jarri du abian: **The Local Way** elkarrizketarako eta mobilizaziorako nazioarteko prozesua da eta tokiko eremutik bultzatutako ikuspegiak, esperientziak eta irtenbideak Konferentzia prestatzeko bidean txertatzea du helburu. Munduko hainbat lurraldetan egindako kontsulta, topaketa eta tailerren bidez, ekimen horrek praktika eraldatzaileak ikusarazi, maila anitzeko gobernantza indartu eta gomendioak egin nahi ditu, akordio globalak komunitateentzat eta ekosistementzat emaitza zehatz bihur daitezen.

Esparru horretan, UN Etxeak eta Eusko Jaurlaritzak **Road to Abu Dhabi antolatu dute Euskadin**; hots, erakunde publikoak, uraren erakunde kudeatzaileak, lankidetza-erakundeak, unibertsitateak, ezagutza-zentroak eta gizarte zibila bilduko dituen topagunea, euskal gizarteak uraren eta saneamenduaren erronka globalei egiten dien ekarpenari buruz hausnartzeko. Ekitaldiaren helburua da Euskadin edo Euskaditik garatutako esperientzia berritzaileen balioa nabarmentzea, hainbat esparru eta eskalatako eragileen arteko trukea sustatzea, eta Urari buruzko 2026ko Nazio Batuen Konferentziarako nazioarteko prozesua elikatu dezaketen mezuak eta proposamenak egitea. Erronka globaletarako irtenbideak tokiko ekimenetik ere sortzen direla uste dugunez, topaketaren helburua da Euskadik jasangarritasunarekin, lankidetzarekin eta 2030 Agendaren kokapenarekin konprometitutako lurralde gisa duen zeregina indartzea.



Helburuak

Erakundeen, erakunde kudeatzaileen, nazioarteko lankidetzaren, akademiaren eta gizarte zibilaren arteko topagune bat sortzea, helburu hauekin:

- Euskadin garatutako esperientzia eraldatzaileak partekatzea.
- Urari, saneamenduari eta erresilientzia klimatikoari lotuta azaleratzen ari diren erronkei buruz hausnartzea.
- Local2030eko Tokiko Road to Abu Dhabi nazioarteko prozesua elikatu dezaketen mezuak eta gomendioak identifikatzea.
- 6. GJHaren inguruan lurralde-aliantzak indartzea.

Parte-hartzaileen profila

- **Sektore publikoa eta ura kudeatzen duten erakundeak:** administrazio publikoak, ur baliabideen plangintzaz, kudeaketaz eta gobernantzaz, horniduraz, saneamenduaz, klima aldaketara egokitzeaz eta 2030 Agenda tokiko, eskualdeko eta nazioarteko mailan ezartzeaz arduratzen diren erakundeak eta agentziak.
- **Lankidetza, gizarte zibila eta entitate sozialak:** garapenaren lankidetzako erakundeak, GGKEak, gizarte zibileko erakundeak, ur eta saneamendurako giza eskubidearen, jasangarritasunaren, justizia klimatikoaren, hezkuntzaren eta parte-hartze sozialaren arloan lan egiten duten fundazioak eta herritarren sareak.
- **Akademia, ikerketa eta berrikuntza:** unibertsitateak, ikerketa zentroak, behatokiak eta ezagutza sortzeko erakundeak, ebidentzia, berrikuntza eta soluzioak ematen dituztenak uraren kudeaketa jasangarri, erresiliente eta inklusiborako.
- **Sektore pribatua eta eragile teknologikoak:** enpresak, zerbitzu operadoreak, klusterrak eta uraren kudeaketari, saneamenduari, digitalizazioari, ekonomia zirkularrari, naturan oinarritutako soluzioei eta erresilientzia hidrikorako berrikuntzari lotutako entitate teknologikoak.

Programa

09:00-09:15 Aurkezpen instituzionala

- TBC, **Local2030 Koalizioa**
- Adolfo Uriarte, **Natura Ondare eta Klima Aldaketara Egokitzeko zuzendaria. Eusko Jaurlaritza**
- Arantza Acha, **UN Etxea**



09:15-10:00 Elkarrizketa inspiratzailea

Ura erronka global eta tokiko eraldaketarako aukera gisa

- Hiri erresilienteak: etorkizuneko belaunaldientzat ura eta saneamendua bermatzea. **BBUP – CABB.**
- Uraren gobernantza eta arroaren kudeaketa integratua klima-aldaketaren erronken aurrean. Víctor Peña, **URA - Uraren Euskal Agentzia.**
- Ura, ekitatea eta garapena: nazioarteko lankidetzatik egindako begirada bat. **Miren Saiz, eLankidetza.**
- Tokiko ekintza eta agenda globalak lotuz: lurraldeek ODS 6aren lorpenean duten zeregina. **TBC, Local2030 Koalizioa.**
- Moderatzailea: Arantza Acha, **UN Etxea.**

Galderak:

- Zein da uraren erronka nagusia hurrengo hamarkadari begira?
- Zer ekarpen egin dezake Euskadik?
- Zer egiten ari gara, nazioartean partekatu beharrekoa?

10:00-10:45 Esperientzien elkarrizketa: Uraren erronkarako tokiko soluzioak

Publikoaren esku-hartze azkarren txanda (4-5 minutu bakoitzak)

- Erakundearen eta egitekoaren aurkezpena
- Zein da uraren erronka nagusia hurrengo hamarkadari begira?
- Zer ekarpen egin dezake nire erakundeak?
- Zer egiten ari gara, nazioartean partekatu beharrekoa?

10:45- 11:00 Itxiera

Gomendioen laburpena eta hurrengo urratsak

11:00-11:30 Kafea eta networkinga

Antolatzaileak:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LOCAL 2030
LOCALIZING THE SDGS

UN ETXEA